

Gure kabia

Ikasbiletik hartua eta Ikan moldatua

1- Nolako etxea daukazu?

Nolako etxean bizi zara? Deskriba ezazu xehetasunak aipatuz. Adibidez:

- Tamaina orokorra
- Logela-, solairu- eta komun-kopurua
- Gelen tamaina
- Argiztapena
- Altzariak...



2- Etxe bila

Ikusi bideoa eta erantzun galderari.



- a) Zertan ari da Antton ordenagailuaren aurrean?
- b) Zer nahiago du Amaiak, etxea erosi ala alokatu? Zergatik?
- c) Zein da Anttonen lehenengo aukera: hirigunea ala kanpoaldea? Zer dela-eta?
- d) Eta Amaiak zer argudio erabiltzen du etxea erdigunean alokatzeko?

e) Nork aukeratu du azkenean etxea: Anttonek, Amaiak ala bien artean?

f) Anttonek eta Amaiak adostutakoaren arabera, hauetako zein izan daiteke alokatu behar duten etxea?



Etxea merke-merke: 540 euro



Teilatupea erdigunean: 550 euro



Pisu arrunta elizaren ondoan: 530 euro.



Pisu zaharra portuaren ondoan: 550 euro

g) Hainbat ezaugarri hartu dituzte kontuan Amaiak eta Anttonek. Hauek guztiak? Horietatik, zein ez?

- 1) Erdigunean egotea
- 2) Pisua izatea eta ez etxea
- 3) Errentan hartzea
- 4) Lantokitik gertu egotea
- 5) Oso garestia ez izatea
- 6) Eraikin oso zaharra ez izatea
- 7) Gelek kanpoaldera ematea
- 8) Hezetasunik ez izatea

h) Irakurri Amaiak dioena: “Jabetu al zara? Oso aukera gutxi dago alokatzeko”. Zuk zein kasutan alokatuko zenuke pisu bat? Zer kasutan ez? Eman zure iritzia.

→ *Bikote honen kasuan bezala, nik, hasieran, ez nuke pisu bat erosiko. Gauzak ongi badoaz, aurrerago bai...*

→ *Ni alokairuaren aldekoa naiz. Jende gehiagok hartuko balitu etxeak alokairuan, prezioak jaitsi egingo liratekeela uste dut.*

3- Feng Shui

Etxea bizileku goxo bihurtzeko, Feng Shui teknika aholkatzen dute batzuek. Baina, zer da berez teknika hau? Entzun audioa eta galderari erantzun.

1.- Zein da, lehen pertsonaren arabera, bere bizitzari harmonia ekarri dion arrazoia?

2.- Zer aldaketa aipatzen ditu?

3.- Lagunaren arabera, berriz, zein da harmoniaren benetako arrazoia?

Zer dakizu Feng Shui arteari buruz? Sinesgarria iruditzen al zaizu; ala, aitzitik, sineskeria txatxu bat? Eman zure iritzia.

Erreparatu testuko egitura honi: “**Feng Shui artearen arabera**, gure burmuinak ura ikusten duenean, bizirik iraun dezakegula ulertzen du (...)”

Kontuan hartu:

Arabera hitza erdarazko *según* hitzaren parekoa da. Izen-sintagma bat behar du aurretik, beti genitiboan (-aren, -en).

- *Arkitektoak esan duenaren arabera teknika egokia da Feng Shui*
- *Teknika horren arabera, etxea egoki jantzi dezakezu*

Ezin zaio erantsi zehar-galderarik:

- *Iritziak asko aldatzen dira, nori galdetzen zaion.*

Okerra da: **Iritziak asko aldatzen dira, nori galdetzen zaionaren arabera*

Irakurri pertsona edo erakunde hauek esan dutena eta osatu esaldiak. Noren araberakoa da informazioa?

Gaztezulo	Gero eta Ikea-klon gehiago dago inguruan. Joera horretan ez erortzeko komeni da irudimena lantzea.
Stefania Sagnotti arkitektoa	Etxea janzten Feng Shui teknika erabiltzea oso egokia da, gure bizitzari oreka ematen baitio.
EITB	Etxebizitzaren kontzeptua urteekin aldatzen doa. Betiko porlanaren eta adreiluaren ordez, teknika iraunkorrakoak, merkeagoak eta ekologikoagoak erabiltzen hasi dira.
Baztango Udala	Etheen zaharberritzea bultzatu nahi du Baztango Udalak. Dioenez, etxe ugari aspaldikoak eta oso handiak dira, eta asko hutsik daude.
Gazte aukera	Hainbat herrialdetan jendeak alokatzeko joera handiagoa du hemen baino.

- 1) **EITBk esaten duenaren arabera**, etxebizitza-mota desberdinak hasi dira agertzen betiko porlanaren eta adreiluaren ordez.
- 2) _____ gero eta Ikea-klon gehiago dago inguruan.
- 3) _____, atzerrian jendeak etxeak alokatzeko joera handiagoa du hemen baino.
- 4) _____ zure bizitzari oreka emateko oso egokia da Feng Shui teknika.
- 5) _____, Baztango etxe asko aspaldikoak dira eta hutsik daude. Komeni da, beraz, horiek zaharberritzea.

4- Lastozko etxea

Entzun audioa eta deskribatu etxea hiruzpalau lerrotan. Aipatu xehetasun hauek: <https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/faktoria/oso/5375126/otso-zulo-lastozko-etxea-eraikitzen-ari-dira-erenozun-hernanin/>

- a) Etxearen tamaina (solairuak)
- b) Paretak nola egin diren
- c) Lurra nola egin den
- d) Etxe barruko material nagusia zein den



.....
.....
.....

Konparatu etxe-mota hauek nahi duzun ikuspegitik: erosotasuna, estetika, kostua, materiala, gustua eta abar.



Lastozko etxea



Etxe orratza



Jauregia

Gogoratu konparaziozko egiturak:

Desberdintasuna adierazteko: baino... -ago / baino... gehiago-gutxiago

Superlatiboa: (-rik)...-ena

Gero eta... -ago / gehiago-gutxiago; hain; hainbeste
-en aldean

- Ekaitzetatik babesteko, karea buztina **baino** egokiagoa da.
- Otso Zulo Erenozuko etxerik ekologikoena da.
- **Gero eta** etxe sendoagoak egiten dira gaur egun.
- Buztinak beroari eusten dio. Karea, ordea, ez da **hain** eraginkorra.
- Lastoa estaltzeak lan handia eman du, barrukoa egiteak ez **hainbeste**.
- Lastozko etxea, betiko etxeen **aldean**, merkea da.

5- Non biziko zinateke?

Zein tokitan bizi zara edo biziko zinateke, hiri batean ala herri batean? Zeri ematen diozu garrantzia bizilekua aukeratzean? Ikusi aukerak eta komentatu.

- a) Erdigunean egoteari
- b) Toki lasaia izateari
- c) Auzokiderik gabe egoteari
- d) Auzoko giroari (zerbitzuei, jendeari...)
- e) Lantokitik gertu egoteari
- f) Mendian edo itsasbazterrean egoteari...

Ordenatu aipatu diren irizpideak garrantziaren arabera.

→ Zerbitzuak eskura izatea da, nire ustez, garrantzitsuena. Ez zait gustatzen autoaren menpe bizitzea...

→ Bai, baina niri ez zaizkit hiriak gustatzen. Nahiago dut herri batean bizi. Gainera, etxeak merkeagoak dira...

6- Herri txikia ala hiri handia?

Ikusi bideoa eta erantzun galderai.

a) Elgorriagan bizi aurretik beste hainbat tokitan bizi izan da Abel Bastida. Lotu bizitzeko etapak eta tokiak.

Azkoitia	Orain dela urte gutxi
Azpeitia	Unibertsitate-garaian
Bilbo	Nerabezaroan
Sunbilla	Jaiotzean

b) Zergatik du nahiago herri txikia hiri handia baino?

c) Herri txiki baten desabantailak zein direla esaten du?

d) Abelek aipatu ditu herri txikietako liskarrak. "Herri txiki infernu handi" esan ohi da. Horrela dela uste al duzue? Komentatu taldean.

Eta zuk zer nahiago duzu? Herri txikia ala hiri handia? Lastozko etxea ala etxe-orratza? Zein izango litzateke zure bizitokirik gustukoena? Non bizi nahiko zenuke? Zein dira bataren eta bestearen alde on eta txarrak?... Konpara itzazu aukerak. Egin hipotesiak.



.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ERANTZUNAK

2- Etxe bila

- a) Zertan ari da Antton ordenagailuaren aurrean?
Amaiarekin bizitzera joateko etxe baten bila ari da
- b) Zer nahiago du Amaiak, etxea erosi ala alokatu? Zergatik? Nahiago du alokatu.
Lehenengo elkar ezagutu behar dutelako eta nahiago duelako zuhurtziaz jokatu.
- c) Zein da Anttonen lehenengo aukera: hirigunea ala kanpoaldea? zer dela-eta?
Kanpoaldean, aparkatzeko errazagoa delako eta natura gertuago izango dutelako.
- d) Eta Amaiak zein argudio erabiltzen du etxea erdigunean alokatzeko?
Oinez joan ahal izatea etxetik lanera.
- e) Nork aukeratu du azkenean etxea: Anttonek, Amaiak ala bion artean?
Bion artean aurkitu dute gustuko pisua, baina Amaiak aurretik aukeratua zuenez, berak bideratu du bilaketa. Azkenean, Anttoni aitortu dio lagun baten arrebarekin tratua egin zuela eta antzerkia egin duela.
- f) Anttonek eta Amaiak adostutakoaren arabera, hauetako zein izan daiteke alokatu behar duten etxea? **2**
- g) **Gelek kanpoaldera**

3- Feng Shui

- 1.- Feng Shuia ezarri izanak ekarri dio harmonia.
- 2.- Ohea iparralderantz orientatu du eta orain lo sakonak hartzen du.
- 3.- ONCEren zozketan hamabost milioi jausi zaizkiola.

- Gaztezulok **esaten duenaren arabera**, gero eta Ikea-klon gehiago dago inguruan.
- Gazte aukerak **esaten duenaren arabera**, atzerrian jendeak etxeak alokatzeko joera handiagoa du hemen baino.
- Stefania Sagnotti arkitektoak **esaten duenaren arabera**, zure bizitzari oreka emateko oso egokia da Feng Shui teknika.
- Baztango Udalak **esaten duenaren arabera**, Baztango etxe asko aspaldikoak dira eta hutsik daude. Komeni da, beraz, horiek zaharberritzea.

4- Lastozko etxea

Etxea ederra da. Bi solairu ditu. Batean familia bat bizitzeko eta bestean beste bat. Paretak lasto-fardoekin egin dira. Gutxi gorabehera lauhun bat erabili dituzte. Lurra ere lasto fardoekin egindakoa da. Etxe barruko material nagusia buztina da.

5- Herri txikia ala hiri handia?

- a) Azkoitian jaiotzean, Azpeitian nerabezaroan, Bilbon Unibertsitate-garaian eta Sunbillan orain dela urte gutxi.
- b) Bizi-erritmoa lasaiagoa da, harremanak estuagoak dira, herri baten funtzionamendua hobeto ezagutzen duzu, udalean edo herri-lanetan parte har dezakezu, harreman zuzenagoa duzu.
- c) Autoa hartzea erosketak egiteko, eta zerbitzuen falta.